

**ZUBEROA.-** Pirinioetako Mendikatean dauden euskal mendiak Zuberora iristen direnean, Iratiko Ohianaren Ekialdean bi mila metroko garaierara altxatzen dira. Tontorren artean dagoen desnibelaren alde handia oso nabarmena da Ori (2.017 m) mendian. Mendi honek atlantikoko klima aldaketak pairatzen ditu eta hori dela eta, neguan eta udaberriko parte handi batean tontorra elurraz zurituta du.

Ori mendiaren Ekialdean, mendi dotore batzuen lerroak zerua muxarratzen dute eta beraien tontorrak ia bi mila metroko altuera hartzen dute. Garrantzitsuenak Otsogorrigaina (1.923 m),. Xardekagaina (1.893 m) eta Lakartxela (1.986 m), Larrañe, Santa Grazi eta Uztarrotz haranen artean daude. Haranak sakonak dira eta mendiak, forma dotorekoak, Pirinioetako mendigune altuentzat duinak diren desnibelak dituzte. Hiru tontor hauen arteko gertutasuna dela eta, aipatutako haranetatik igotzeko abiapuntuak berdinak izan daitezke, igoera eta ibilbide desberdinak egin eta elkartzeko aukera ematen dute.

Santa Grazi eta Belagoa haranen artean Lakora (1.877 m) mendia altxatzen da eta oraindik gaur egun bere maldetan glaziarren eragina nabarmena da. Hego isurialdea Atlantikoko eguraldi latzetik ondo babestuta dagoen Belagoa haran ederrera erortzen da. Ipar isurialdea berriz, Santa Grazi haranera jaisten da, Elhujarre eta Kakuetakoa arroila ederrei babesa emanez.

Mendi hauetako Ipar isurialdeko hegietan, Larrañe eta Santa Grazi artean, erreka indartsuek, arroila estuak egin dituzte, kareharrizko geruza lodian landutako arraildura ikusgarriak, batzuk neurri apalekoak eta ia ikusezinak.

**LARRA.-** Zuberoako Ekialdeko muturrean eta Nafarroako Ipar-Ekialdean, Errokari haran-buruan dago, Belagoa, eta Santa Grazi haranen artean, Bearn eta Huescakin muga eginez, Hiru Erregeen Mahaia, Anie, Arlas, Lakora...mendi esanguratsuaz inguratuta, Larra izeneko kareharrizko goilautada zabaltzen da. Lapiaz, dolinaz, haran itxiaz, leizez... osatutako eremu karstikoa erraldoia.

2000 metrotaraino altxatzen da eta goialdea lau-samarra da, Europako gune karstiko garrantzitsuenetako bat eta Munduko espeleologia interes duen gune nagusienetakoa. Uraren eraginak leize sakon ugari ireki ditu, ingurua benetako parke espeleologiko bat bihurtuz. Hemen dago San Martingo leizea, munduko sakonenetako bat.

Harkaitz esponja honek Hego isurialdeko Belagoa ibaira drainatzen du, zeinek bere ibilbidearen hasierako tarte honetan Belagoa Haran ederrari forma eman dio.

Mendiguneko goialdean talde gutxi gorabehera handietan pinu gorria nabarmentzen da, masa garrantzitsuena Ukerdiko Erreserba Integralean babestua dago. Behealdean pagadi eta izeidiak daude, eta hauetako gune babestu bat ere badago, Aztaparretako Sakoneko Erreserba Integrala hain zuzen, inoiz ustiatu gabekoa.

Fauna aldetik ere gune aberatsa da, sarrioak, arrano beltzak, sai zuriak, basoilar... dira aipagarrienak.

**ZUBEROA.-** Las montañas vascas integradas en la Cordillera de los Pirineos se elevan hasta los dos mil metros de altura cuando llegan a Zuberoa, al Este de la Selva de Iratí. Esta diferencia de desnivel entre las cimas es muy evidente en el monte Ori (2.017 m). Esta montaña se halla muy expuesta a las variaciones climáticas atlánticas y por esta razón durante el invierno y buena parte de la primavera su cima se halla cubierta por la nieve.

Al Este del pico Ori, una línea de esbeltos picos recortan el cielo y sus cimas casi alcanzan los dos mil metros de altitud. Las más importantes son Otsogorrigaina (1.923 m), Xardekagaina (1.893 m) y Lakartxela (1.986 m), a caballo entre los valles de Larrañe, Santa Grazi y Uztarrotz. Los valles son profundos y las cimas, de formas esbeltas, poseen un desnivel digno de los altos macizos pirenaicos. Debido a la cercanía que tienen entre sí estas tres cimas, los puntos de partida para sus ascensiones desde los valles mencionados pueden ser comunes, lo que permite realizar y combinar diferentes ascensiones y rutas.

Entre los valles de Santa Grazi y Belagoa se eleva el Pico Lakora (1.877 m) y en sus laderas hoy en día aun es latente la acción de los glaciares. La vertiente Sur cae hacia el maravilloso valle de Belagoa, bien protegido de los rigores atlánticos. La vertiente Norte a su vez desciende al valle de Santa Grazi, protegiendo los magníficos cañones de Elhujarre y Kakueta.

En las laderas de la vertiente Norte de estas montañas, entre Larrañe y Santa Grazi, poderosos torrentes han formado unos cañones muy estrechos, verdaderas hendiduras talladas en la gruesa capa calcárea, algunos de proporciones modestas y a menudo imperceptibles.

**LARRA.-** En el extremo Este de Zuberoa y al Noroeste de Nafarroa, en la cabecera de Erronkari, entre los valles de Belagoa y Santa Grazi, limitando con Bearn y Huesca, rodeado por montañas tan significativas como Mesa de los Tres Reyes, Anie, Arlas, Lakora...se extiende la meseta calcárea de Larra. Se trata de un paisaje kárstico formado por un gigantesco campo de lapiaz, dolinas, valles ciegos, simas...

Se eleva hasta los 2000 m y en su parte superior es relativamente plana, dando lugar a uno de los conjuntos kársticos de mayor importancia de Europa y como una de las principales zonas del mundo de interés espeleológico. La acción del agua ha abierto profundas simas que hacen del lugar un verdadero parque espeleológico. Aquí se encuentra una de las simas más profundas del mundo, la sima de San Martín.

Toda esta esponja rocosa drena en la vertiente Sur hacia el río Belagoa, que en este primer tramo de su recorrido forma el bonito Valle de Belagoa.

En las zonas superiores del macizo destaca la presencia de pino negro en grupos más o menos grandes, existiendo una masa más importante que está declarada y protegida como la Reserva integral de Ukerdi. En zonas más bajas hay bosques de hayas y abetos, de los que existe también otra zona protegida, la Reserva Integral del barranco de Aztaparreta, que nunca ha sido explotada.

La zona es rica también en fauna, destacando la presencia de sarrios, águilas reales, quebrantahuesos, urogallos....